Udea Euzkadi'n

Igandia da, azkenen igaziťakua. Goxian jaupea entzun ondoren eldu gara Ondaŕeta'ko geldokira. Obeto, geldoki auŕera, ba, geldokijan saŕtzeko ordubete ta laurden igazi ixan biaŕ yakuzan, ¡ain eguan oste andija!

Au idazten jaŕi orduko Euzko-Ekintza'ren egunoroko "Tierra Vasca" irakuŕi dogu ,astaŕteko zenbakiia, ta bertan, "Paiaros" ataltxuan "gamberros" edo emendik dabiltzazan kankaluetzaz diñonari oratuten dautsogu.

Aulan diño:

"Consejos para la temporada de verano: Si quieres pasar agradablemente los domingos, no salgas de casa. Si te echan de casa, métete en un cine. Si la mujer te obliga a ir a una playa, lleva escopeta. Y cuando los "gamberros" te peguen con el pelotón o arrojen una bota de vino a tu hija mayor, o le echen al agua a tu hijo más pequeño, dispara bien sin mirar a quién."

卐 卐 卐

Eta orain guazan auŕera, geuk igandian aŕtu genduban bidetik ziaŕ. Ondaŕeta'ko geldokijan aŕtu genduban bultzija ta bederatzi ta leurdenetan eldu gintzazan Algorta'ra. An egon gintzazan apuŕtxu baten eta baŕiro aŕtu geban bultzija ta Laŕabasteŕa'raño eldu gintzazan. Bultzi dana beteta juan zan .Gu saŕtu gintzazan gurdijan joyan Untzueta'taŕ Soŕne, Eŕazti'taŕ Gergori bere senaŕagaz, aŕatsaldian Gatika'n itz egiťeko .Geuk be arako ustia geunkan eta aŕatsalderaño esanda aguŕtu genduzan senaŕ-emazte zintzuok.

Euri apuŕa zan eta ezkenkijan zer egin, edo auŕera edo atzera ,baña ezkara zaŕak be ain arin bilduŕtuteko ta aurera juan gintzazan laurok ,bi eskondubak eta bi eskongeyak .Geure aŕteko bat, españaŕa, baña egunero EUZKADI irakuŕten dauna ta geure Abeŕija'ren zaletuten duala diñona.

Ezkintzazan ondaŕtzan saŕtu. Eskeŕ-aldera edo saŕkaldera dagozan atxetan gelditu gintzazan laurok alkaŕegaz ta bakaŕ-bakaŕik geure aldratxuba.

Goiz gustija igazi genduban lapatxu batzuk aŕtu ta geure Abeŕija ta abeŕtzaletasunatzaz berbetan, eta eguberdija inguratu yakunian ,uretan saŕtu-urten bat egin eta ondaŕtzea igaro genduban, ondaŕtzearen beste aldian, geruan jatekotxubaren laguntzarako edaki apuŕa erosteko.

Eta ordubantxe ikusi genduzan ainbat eta ainbat lotsagalduko. Gure aldratxuko abtek iñostan: "Aŕtibai, oŕ daukok zer idatzi." Eta egija, zer idatzi ba-dago gogorik euki esketiño ,ba, an ikusten diran losabakokerijak, an ikusten diran gangaŕkerijak; naskagaŕikerijak iguinduta itxiťen dabe gixona. Iguinduta ta idazteko ez eze ondaŕtzearen ixena aŕatuteko be gogo barik.

Bertan ikusten diranetako asko emen txaiderik-txaide dabiltzan izpaŕingi saltzale, karamelero, ta España'tik etoŕi yakuzan bada-ezpadako gixon a emakumiak dira. Dana satsa, dana ustela.

Eta enua ezer geyago esaten naikua deritxogu esan dogunari oŕ goiko txaide batzuben "sucursala" deritxogun ondaŕtzeatzaz-ta.

卐 卐 卐

Aŕintxu jan genduban eta urten gintzazan Urdulitz-aldera Gatika'rako ustiagaz, baña eguraldijaren bilduŕ ta uŕuntxu be bai uri a ,bira eta Algorta'runtz jaŕi gintzazan. Sopelana'tik Laŕabasteŕa'ra giñuala neskatil gastetxu bategaz auŕkiťu gintzazan, euzkeraz mintzazen zan eta geure iťauneri erantzun eutson ,eztala aurten baten be saŕtu ondaŕtza aretan. Berari ezeutson arduraŕik be; bestera pozik eguan, berak eztau gura alako astakioen aŕtian nastau be, ta. Igandia ixanagaťik ganera, bere aťa bazkal-osteko atsedena egiťen juan zan oe ganera ta berak atara ebazan beyak mendira, eŕomerirako asmo andi-barik.

Berango'n saŕtukeran ikusi geban ango Batzoki baŕija ondiño gustiz amaťu barik. Batzoki edeŕa.

Algorta'ra saŕtukeran, ango abeŕtzale zintzo batzukaz auŕkiťu gintzazan eta eurak esan euskuben an gure atzetik etozan sosuak emendik etaratiak naikua lan emongo dauskula.

Ezta baŕe egiťeko ixan be. Oŕeik sosuok ondaŕtzako ibilťiak naiko eztabezala, bitxabal eta bide-zioŕetatik duazanian eta geure basetxe txukunetan bixi diran biztanle kistaŕ zintzoei lotsaŕik gorde baŕik, edozelako abestijak abestuten dakijez.

¿Zer egin eurok emendik atarateko? Auxe ezta gauza eŕaz-eŕaza asmetan, baña bein asmau ezkero, bai, eta gerotxuago esango dautsubet.

Algorta'n aŕtu genduban bultzija eta Ondaŕeta'ra eldu gintzazanian ibaya igaro ta Sestao'ratu gintzazan, ango itzaldijak entzuteko Itzaldijok ango Batzokija'ren ziláŕezko eztegubak zirala-ta ixan ziran

Goxetik edo auŕegunetik egunerako egiťaraba egin ezkero, ondo ibilťen da gixona, ta abeŕtzalia askotzaz be obeto, ba ¿zer gura dau abeŕtzaliak geure mendi ta baŕetatik ziaŕ itxaseŕtzera eldubaz, ango abeŕtzaliak besaŕkatu ta euretan igandero egin oi diran itxeikixun abeŕkoyak entzun entzun baño? Eta gauza edeŕa da ixan be.

Guk be, ba. Gatika'rako ustia genduban, baña eguraldijaren bilduŕ, Sestao'ratu gintzazan.

卐 卐 卐

Zabala'taŕ Miren Terese'k iñarduban izketan eta berak amaťu ebanian txalo asko entzun ebazan.

Baña ¡gixonak eta emakumiak! Itzaldija, "Lauaxeta"rena. Ezin geinke idatzi arek esan ebazanak, ezkara nor, ezkara gauza. Ez uste ixan oŕegaťik baña, aťu ezkebanik edo uleŕtu ez. ¡Ez! Gauza andijak, gaŕatsak eta labanak, mingotzak eta gozuak esan ebazan berak, baña dan-danak eŕaz-eŕaz uleŕtzeko eran, eta guk eta an egon gintzazan gustijok ondo baño obeto uleŕtu geuntson berari.

Neuk saŕi entzun dautsot "Lauaxeta"ri, tiťin-potin entzun be, baña egun bi ixango dodaz gomutan "Lauaxeta"ren ixena bururatu ezkero. Baña Zarautz'ko pelota-tokijan orain urte bi egin eban itzaldija euzkeraz, eta igaziťako igandian Sestao'ko Alb.z ostiko-zelayan edeŕa egin ebana.

Saŕi entzun ixan dogu eŕderazko esaera zaŕ auxe: "Buen escritor, mal orador." Baña enago neu beroŕegaz beti. Gixon batzubetan ixan lei, baña ez gustijetan. Oŕ daukagu eredu "Lauaxeta"; bai eŕderaz ta bai euzkeraz ondo baño obeto idazten dau berak eta itz ostera... Astaŕtian iñostan emen Bilbao'ko gixon jakintsu ta abeŕtzale ospetsu batek: "Me he enterado de que "Lauaxeta" soltó un discursazo formidable." Eta olan zan ixan be. "Lauaxeta"'ren itzaldija, taquígrafo batek aŕtu ta zabaltzeko duin zan.

Iruxo'ren itzaldija, be, atsegin ixan yakun, ¿zelan ez? Iruxo'k txinpaŕtak ataraten dauz beti be.

卐 卐 卐

Oŕ ba gure igandia, udako igandia. Olakotxiak ixaten dira Euzkadi'ko abeŕtzalien aŕtian udako igandiak. Goxian mendi ta ondaŕtzea, ta aŕatsaldian itzaldi abeŕkoyak entzutera. Eta ¡zelako ondo igaro leike txindi gitxitxu ereindal, eta abeŕtzaletasunari indaŕa emonaz ta norbere laguntza iñoiz be ukatu-barik.

Baña al'ba-dogu, abeŕtzaliok iges biogu ondaŕtza oŕeťatik soso usaña dauke-ta. España axia dabe-ta. Guk eztogu olako jakintzarik (?) biaŕ. España'ko jakintza ta auŕerakuntza gustija uri andi edo "poblaciñoetatik" aŕtzen daben lizunkerijena da. Guk Euzkadi'n daukaguna, ostera, geure basetxietatik datoŕkiguna, ango garbiťasunian eta bertako ekandubetan soŕtuten yakun jakintza ta auŕerakuntza. An basetxiak atzeratubak dira. Ezagun orduban bere ixatia atzeria dana. Emen ostera basetxeko jakintza ta zintzotasuna ta bertatik yatoŕkuzan ekandubetatik soŕturiko lagijak askotzaz obiak uri andi ta usteletatik datoŕkiguzanak baño.

Eta zoritxaŕan oŕeik daukaguz gauŕ geure abeŕijan nagusi.

Eleizalde zanak, bere "Landibaŕ"eko Gaztanbide'taŕ Mikel'en biťaŕtez diñosku mutil onek bere ikastaruak egiťeko Madrid'era iñuala Ebro erekea igarotzean: Ebro igaroten guaz diñotso batek, eta berak erantzuten dautso: Ezta txaŕena guk Ebro España'runtz igarotia, txaŕagua da eurak Euzkadi'runtz igarotia.

¡Zelako egi andija!, eta ¡aŕanua!, loŕtu dabe. Lapak eurak atxari baño be Euzkadi'ri josijago dagoz. Ez baña lapak lez atxa maťe dabelako, Euzkadi ta euzkotaŕen bizkaŕ bixťia eŕazago dalako baño. "La merluza frita".

Eta ¿zelan eurekandik ezkatu? ¿Zelan ostera? Lapak atxetik kendu ezkero bixitzia kenduten yak ta ezin dira bixi. Guk be egun baten eŕeko ba-gendu Bilbao'ko eŕeka gustija, asi Euzkalduna'tik eta Altos Hornos ta La Bizkaya ziaŕ, Naval eta Santurtze'ko "gasoliña" ontzijetaragiño, ordubantxe geldituko litxakez lapak aitz-barik lez. Eta orduban, ¡duazala euren amamaren luŕak zainduten!

Eta biťaŕtian, gu, ezkadixan ondaŕtza oŕeťan eurekaz nastau.

AŔTIBAI

BIOTZ-BEGIETAN

Libro de poesías con traducción castellana

Xabier de Lizardi

(Prólogo de «Orixe»)

EUZKO

JEL-ASTEROKO IZPAŔINGIJA

Larunbatetan agiri ixaten da

Euzkelduna: Abertzalia ba'zara, erosi ta irakurri biar dozu asteroko au.

Joyería-Platería-Relojería
CONSTRUCCION Y REFORMA DE ALHAJAS
Legazpi, 10. -- DONOSTIA

ARIETA BITXIZALEA

Bitxitegia-Zilartegia-Gabeukaztegia
BITXAK EGIN ETA BERRITZEN DITU
— Urrutizkiña, 13.777 —

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
L. LEGARISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas). — GIPUZKOA

"BIYONA" LUGINTZA-ETXALDIA (Irun'en, Ilno. 313'an.)
2.000 "Leghoru"-oluak aŕautza-miintiak zenbatzeko abijakaz. Txiťak ataráteko ŕautzak saltzia. Olaskotxu jayopaŕijak. Iru ilabeteko olandatxubak.

EUZKO-OLERTI-EGUNA

Iparragirre olerkariaren omenez

Euzkoen aberija ezagutzen etzan garai ayetan, Ipaŕagiŕe'k lez bere maťasuna abestu ziyonari omenaldiya eskeintzea biaŕekua zan ,da biaŕekua izanik, ¿nola ez oroťu beragaz "Euzkeltzaleak" bazkuna?

Oroťu da ba, ta Uŕetxua'ko Udalarekin batera jayaldi bikaña antolatu ere bai. Egun au ospatzeko autuba datoŕen igandea, 16 gna. da. Emen Uŕetxua'n bilduko gera euzkeltzale geyenok oleŕti bidez euzko yakintza sendotzeko antolatu dan jayaldi au goraltzeko, bere gaŕantziya edo nork ezagutzen dulako.

Ona egitaraua:

15'an.—Aŕatsaldeko 6'retan txistubatzak emango diyo uriyari bira euzko-eresi alayak juaz.

9'etan, eresbatzak biribilketa, ta ostian "Edeŕena" pelota-lekuan antzeŕki jaya. Zumaya'ko Euzko-Etxea'ko antzezlari yayoak "Ramuntxo" antzeztuko dute.

16'an.—7'retan, eresbatzak goizeresiya.

9'etan, txistubatzak biribilketa, ta "Aguŕ jaunak" juaz lagunduko diye Martin donearen eŕtxadonaraño jaupa nagusira dijuaztenai.

10'etan, jaupa nagusiya. Bertan Uŕetxua'ko abesbatzakuak abestuko dute. Txonitza Abaunz'taŕ Andoni jaunaren gain utzi dute, ta erabiliko dun gaya "Otoitza ta olertia".

Ondoren Udaletxeko aretuan ospatuko dan elerti-jayean itz egingo du Ipaŕagiŕe'tzaz "Euzkal-Esnalea"ren lendakari Eizagiŕe'taŕ Joseba jaunak. Areto oŕetan da jai oŕen amayeran izango da mala bakoitzean auŕkezturiko oleŕki onenantzako sari banaketea ,ta irakuŕiko da auŕkezturiko oleŕkietan onena edo sarí gorenengua irabazitakua.

Jai au ospatzen dan bitaŕtean eresbatzak euzko-eresi txoŕta bat joko du, neuŕtitzlariyak (bersolariyak) ere neuŕtitz batzuk abestuaz.

Ona eresbatzak joko ditun eresi lanak: Franko'ren "Euzkal-Eŕiko kantak", lenengo "Aires Vascos" ta bigaŕen "Aires Vascos".

Belaustegi'ren Alborada Vasca".

Ipaŕagiŕe'ren "Gernika'ko Arbola".

1'etan, oturuntza.

3'etan, Ipaŕagiŕe enparantzan iŕintzilarien aleginketa.

4'etan, txaidietan igaroko dira ezpataadantzari, gorulari ta abaŕ, txistulariekin batera.

4'terditan, euzko-jayaldi andiya "Edeŕena" pelota-lekuban. Izango dira dantzariyak, gorulariyak, bertsolariyak eta abesbatza.

Abesbatzak abestuko ditun abestiyak:

"Festara".

"Goizeko-Izaŕa".

"Txamangaŕiya".

"Eskeŕak Jauna'ri" (C. S.).

"Ume edeŕ bat".

"Gernika'ko Arbola".

Tarte batean Deba'ko Urkiri'taŕ Jon abeskoiti entzuntetsubak abesti lan batzuk abestuko ditu loreskinlari batek lagundu-ta. Jayaldi onen amayeran dantzari, gorulari, abesbatz, txistulari, eresbatza ta danok jungo dira Ipaŕagiŕe enparantzara ta gustion aŕtean abestuko da "Gernika'ko Arbola".

Enparantza oŕetan bertan izango da euzko-eŕomeriya ,otoitza jotzen dun aŕte.

Gabian 9'etan "Edeŕena" pelota-lekuban antzeŕki jai bikaña. Donostia'ko antzezlari txalotubak antzeztuko dute "Doloŕa".

Bikandi andereñua, Egileor, Beorlegi, Baŕiola ta abaŕ'ek lan-egiten dutela esatea naikua da saŕtzen diran gustiyak pozik irtengo diran uste osuan saŕtu ditezen.

卐 卐 卐

Egitarau onekin nor gelituko da ila onen 16'an Uŕetxua'ratu gabe? Euzkeldun bati atsegin izan lezayoken dana arkitu lezake egun oyetan; ezpatadantzariyak, gorulariyak, neuŕtitzlariyak, elizkizunak, itzaldiya, antzeŕkiya, eresiya, abestiya ta dantzatu gura ba-da euzko eŕomeriya. Geyago ezin dezakegu eskatu.

Eztegu uste iñor asko gelituko danik Ipaŕagiŕe zanaren uri poliť au ikertu gabe. Badakizute, datoŕen igandean danok Uŕetxua'ra.

卐 卐 卐

Toki askotatik, eta euren aŕtean Donibane Loitzun'dik, eskatu dituzte oturuntzaren zertzeladak, eta ba-liteke beste asko ere jakin nayan egotea. Danok jakin dezaten argitalduko degu bazkalgaya ta saneuŕiya.

Bazkariya: jakartiyak, ugolukiña, txalkiya lekabukin, legatz eŕagosiya, olasko eŕea gatzospiñakin, batzutariko mai-azkenak, akeťa edari biziak eta txokoŕa.

Saneuŕiya, 8 laurleko.

Bazkari onetara etoŕi nai dubanak eskatu biaŕ du bazkari-txartela gauŕ, ostirala, gabeko 9'k biťaŕtean.

Eskakizunak egin daitezke udelatxera.

AŔI GOTZON

ERRIJETATIK

OROZKO

JAYAK.—Igaro zan Jon Deunuaren jaya ,edeŕto ospatup eben emengo jentiak. Txadonkixun ikuskaŕijak ixan ziran eta gero geure dantzarijak, ezpatadantzari eta gorularijak egun aretan lenengoz, ondo-ondo egin ebezan euren dantzak, eta txalo asko entzun ebezan. Zorijon asko eurei ta euren zuzendari zintzuari.

Kepa deunaren eguna muruetaŕak ondo apaindu eben ,lenengo txadon jayak eta gero bidezkunde andijagaz. Salazaŕ'taŕ Pantzeska jaunak atzaldu euskun Daunaren bixitza ,edeŕtasunagaz, eta atzenez geure gastiak dantzatu ta gero bidezkundez amaťu zan.

Baña lotsagaŕija da euzkotaŕ batzuek egiten dabena; geure dantza garbijak alboratu eta "el agarrau" egiťen dabe, ¿e? Abeŕi'ko oťurak eztoguz aiztu biaŕ. Egun aretan txadon gustijetan egin zan arpidia izpaŕingi onaen aldez, katolikuok dauskugulako egin biaŕa bera jagoten. Txindi asko batu zan.

Onek jayok ikusten geratu zan emen geure ordezkari dan Robles Arangiz'taŕ Imanol eta bere sendija.

Saloa'n be egin zan bidezkunde andi bat.

SUKAŔIETA'RA.—Igazi zan bagila'ko 18'gaŕenan asko ixan ziran geure Sabin en ilobija ikusten ,eta bertan itxi eben lore-txoŕta edeŕ bat. Gero Bernaola'taŕ Miren'ek opalpen polit bat Orozko'n ixenian egin eban ,eta eŕi askotik ibili ta, etoŕi ziran poz-pozik. Orain dabiltz beste bat geŕtuten Aralaŕ'era dagonila'ko 20'an, eta asko diŕa oraingaxik emen ixenak emon dabezanak geure Zaindarija ikustera juateko. Uste dabenak juatera arin ibili dabezala, bada merke ipiñi da.

EZKONTZA.—Lengo ilan ezkondu zan Eŕotaetxe'taŕ Purden, Ugalde'taŕ Nemese'gaz. Zorijon asko.

GEXORIK.—Bilbao'n San Sebastian en osategijan egipen zorijontsu bat ixan dau Murueta'ko jauparija dan Salazaŕ'taŕ Julen'ek.

—Osategi beratan Ipaŕagiŕe anayaren amari be egipen bat egin dautse.

—Ainbat denpora oeratuta dago Ibaŕondo'taŕ Lon, abeŕtzale zintzua. Golko Jaunak osasuna emon dagijola.

ETOŔI DIRANAK. — Etoŕi dira ona udea igaroten Jauregibeitia'taŕ Joseba Koldobika jauna bere sendiakin; Bibanko'taŕ Miren emakume abeŕtzalia; Bigera'ren alarguna, bere seme-alabakaz, eta Salzedo'taŕ Balendine, bere ilobakaz; Salzedo'taŕ Karmele. Iruna'tik, Goti'taŕ Koldobika.

Ongi etoŕijak.

LUR-LANGILEAK. — Euriťaldi edeŕa egin da gero lugiñak sano atzeratuba egon dira, artojoŕak amaťu dabez arin-arin, eta oraiu batzuek estu-estu asi dira garijak ebaten ,egun onak egiťen diralako.

ENTZUN... — Orozkotaŕak itxiťasun aundijan euki dabe gaure euzkera maťia, eta au lotsagaŕija. Au ongiťu gura dogu, auŕerantz EUZKADI'n argiťuta geure izpaŕak. Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa'ren aldez didaŕ bat abestuten dagoz.

USOTXU-BI

Uŕaŕa.—Edeŕto egin dozube. Ekin idazten geure abeŕi ta eliaren onerako.—I..

ARANTZAZU

URTEUŔENA.—Datoŕen igandian, garilan 16'gaŕenan, Artetxe'taŕ Eŕoman Euzko-Langile-Batza'ko bazkidia zanaren eriotz-urteuŕena dala-ta, eŕi onetako eŕtxadonan jaupa abestu bat ixango da.

Jaupa au, Lemona'ko Euzko-Iangile-Batza'ko ordainduko dau ,ta goxeko 10'etan asiko da.

Berau dala-ta, ba, Arantzazu ta inguruko gustijei dagitseguen aŕena auxe da: datoŕen igandian jaupa oŕetara eldutxu bat egin barik eztaŕezala geratu.

Goyan bego, Eŕoman, Zuk, irakuŕle kistaŕ oŕek ,baŕiz, otoi bat aren gogo-aldez.

EIBAR

ESKONTZA.—Astelenian eta Aŕate'ko Ama Neskutza'ren oñetan, ezkondu zan Urkiola'taŕ Kepa ("El Día"ko izpaŕkari jatoŕa) Lasa'taŕ andereñoakin.

Ondoren sendi gusia bildu zan gozari edeŕ bat egiñaz.

Ilunabaŕian ezkon-beŕiak España'runtz jun ziran.

Opa diet biziera pozgaŕi eta zoriontsua.

EŔKALDAŔAK. — Igazi dan igandian eŕkaldaŕak antolatuta zuen bezela egin zuen itzaldia, baño ez oŕaitxiok, itzaldi oŕetara jungo zan notintzakin ez zuen ametzik egin. Ez noski.

Lau izlari onenentaikoak ekaŕi, aste gusian "La Voz de Tutakamaladiego"k izugaŕizko izpaŕ eta argazkiak ekaŕi aŕen, 200 lagun baño ez ziran egon.

"Muy Ejemplar" da Eibaŕ eta...

BURNIBIDE ETA MIRENTXU'RI.—Burnibide adizkide ,gaizki esateko gogua dekala uste diat, baño, kontu egin uŕengo baterako, ixkira buruak iri ezaŕi beaŕik ez dagiran izan.

Mirentxu ,zuk bai-dakizu neretako Janari atsegin gaŕiena zer dan; jaŕi ezazu bada batzaŕ-egunerako. ¿Onak al zauden "mutil zaŕak" eramandako goxoak?

LAKATZA

MARKINA

EUZKEL-IXENA. — "Sakoneta" basetxeko senaŕ-emastiak alabatxu edeŕ bat ixan dabe, ta ugutzaldijan Miren Jone euzkel-ixen edeŕa jaŕi dautse.

Aťamabitxijak Bereziartua'taŕ Jon eta Gandiaga'taŕ Miren ixan ziran.

Zorijonak guraso ta aťamabitxijai.

BEDERATZIUŔUNA. — Karmeldaŕen txadonan goiz ta iluntzijan, notintza andija bertaratzen dala, ospatasun andijagaz egiťen da Karmen'go Ama'ren bederatziuŕuna. Neskatilak, be, edeŕto abestuten dautse euren Ama onari.

KARMENAK.—Gañian doguz geure eŕtko jayak. Karmeldaŕ Abeak txadonkixun edeŕak eurak, oi-daben lez, geŕtetan dauskubez ,ta egun aretan karmeldaŕen txadonori bete-beteriik ikusiko dogu notiñez.

Esan dot karmeldaŕ Abeak txadonkixun edeŕak geŕtau dauskubezala. Udal-gixonak, be, uriko jayak geŕtau dauskubez naikua buru-auste erabili ondoren. Jayok Cantalapiedra de Abajo'rako zekulakuak dira gure ziñegotzi abeŕtzaliak Batzokiko ezpatadantzari ta gorularijak euren dantza alayak enparantzan egin leikela ta zerbait esaten asi ziraneko gure aŕkatetxubak ezetz euzko-ikuŕiña erabiltza galerazota eguala-ta. Oneik "tradicionalista vasco puro" diranok euzko-usaña daukan gustijari orixe egiťen dautse. Gero eurak "fueruak" gura ,dabez ta eurak au ta eurak ori ,gu baño "vasco"aguak dira ta beti onakoxe ostikadakaz urten. Euzko-ikuŕiña ikusi baño gurago leukie ,baŕiz, txeŕena bere adaŕ eta bustan eta gusti ikusi.

Baña gure ikuŕin edeŕa gura ta ez ikusi biaŕko dabe.

Baŕiz... lasteŕ beste aldi batzuk datortzanian mun-egiťia, be, biaŕ ba'da gurako dabe. Mun-egiťe ori ba'dakigu zegaťik, eta guk orduban jakingo dogu zer egin.

Biťaŕtian, baña, al dabentxuba egingo dabe bere auŕka. Bilbao'n Josu-Bijotz-egunian, txeigoleyuetan iru maŕgozko oyalak, euki ebezanei jauflarijak galenak ezaŕi eutsezala izpaŕingijan irakuŕi ebanian emengo saloki-jabe bat jozik ebilan bata ta bestia esaten.

¿Ete-dago ondiño, be, abeŕtzalerik olako sal-eroslien salokijetan euren lauŕlekuak iztera diranik? Olakueri onena, ba, auxe da: ez erosi, ¡ta kiťu!

AGUŔTU.—Igazi dan astian "Abeletxe" euzkel-idazle ta "Euzko"ren artezkari dana, emen aguŕtuteko zorijona ixan dogu.

GEXORIK.—Gexorik auŕkitzen da Aginaga'taŕ Miren Kasilde neskatila abeŕtzalia. Ia lasteŕ-lasteŕ sendatzen zarian, Kasil.

ETE

GETXO

EUZKEL-IXENA.—Alabatxu bat ixan dau Laŕinaga'taŕ Imanol'an emastiak, eta ugutzakeran Aguŕtzane euzkel-ixen edeŕa ezaŕ dautse. Zorijonak.

GATIKA'N.—Gatika'ra ixan gintzazan juan zan igandian, eta edeŕto be edeŕto igaro gendun eguna; ¡a bai zala ikustekua!

Ikuŕiñetan be ainbat eldu ziran. Amaiketan jaupa nagusija ixan geban, Algorta'ko pox-poliñak abeslari zirala. Edeŕto abestu eben geure neska-mutikuak irakaslari baŕik ixateko. Gero tamalez, jauparen amayeran Iñaki deunaren eresеŕkija abestu baŕik urten gintzan. ¿Zergaťik? Amabijetan landa erdiian geure poxpoliñak edeŕto aldituxu bat igaro euskun. Azkenez, gu, mendigoxaliok ,geure jakijak aŕtuta juan gintzazan ,alkaŕekin geure sabelak betetan.

Aŕatsaldian baŕiro geure pox-poliñak euren jantzaketak egin ebezan ango abeŕtzaliai naiko txalo joerazoteko.

Nire zorijonak sutsubenak bialtzen deutzubedaze zebei umetxuoi ta batez be zuben irakasla dan Ametzaga'taŕ Imanol'i, zubei irakasteko bere gogo gustija iminden daulako.

IBILŤALDIJA.—Lengo idazkijan esaten nebalez ,datoŕen igandian ixango da. ¿Nora? Zumaŕaga'ra, Irakuŕle, Zumaŕaga'ra; bertan Ipaŕagiŕe'ren omenez egingo diran jai abeŕkoyetara.

Beraz ezeteze baŕ be atzera geratu goxeko saspiretan ixango dalako urteyerea.

"TXIMISTA BAŤ"ERI.—Aguŕ, adizkide ta idazle garbi oŕi. Asko poztu nintzan zeu lako abeŕtzaliak ikustiaz txori-eŕiko mendiriñ-mendi etoŕiťa. Jaŕai, ba, lagun; zeu lako abeŕtzaliak ixango ba'litzakez danak, lasteŕ azkatuta eukiko geunke geure abeŕi maťia.

EUZKO-IKASLE BAT

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;

Txomin Olano'k

Saltzen ditu, merke

Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

MARTIKORENA

Begiyetako galxoen sendagillea

Garibay 13 bis, 2.° - DONOSTIA

Aranburu'tar R.

AZAL ETA TXIZ-BIDIAK

Fueros, 5, 3.° DONOSTIA

Léaes EUZKADI

Bonabendun deuna

Bagnarea, Toscana'ko urijan jazo zan Bonabendur deuna 1221'kaŕenan. Jon eta Eliapele gurasuak aberatsak ziran. Omeŕ-ume-umia zala gexo-gexorik jaŕi zan: oneklari gustijak etzala osatuko uste leben. Gazala-ta amea Pantzeska deuna Jaungoikoa'ren auŕian biťaŕtekotzat aŕtu leban eta ondotuten ba'zan pantzeskaŕen aŕte saŕtuko zan la umia abindu, be, bai. Umia osatu zan, ba, ta ogetabi urte leuzala, pantzeskaŕ lekaidien aŕtian saŕtu zan.

Lasteŕ lekaidien aŕtian oroen eredu izan Jaungoiija , apal-eta otzana, zintzua; ardubak betetan lekijan lekaidia. Itxuzkija eta kubetan eukiťiak eleban bape lotzatu ta bidduŕtuten, poztu ta adoretu baño.

Iťun eta alege ikusten leuzanak poztu-asko aleginduten zan: itz leun eta berets esanaz oro asetuten leuzan.

Uskuŕtziztija ikastia asko atsegin-yakon ori zala-ta Paris'ko ikastola ospetsubetan igoŕi leben nagusijak an ondo ikasi legijan. Ales'taŕ Alexander ixan leban irakasleonek Bonabendur ikusiťa auxe liñuan: "Ona emen bene-benetako ixaŕeldaŕa, Adan obenik beragan ixan eztauga."

Beronegaz batera ikasten liñarduban Toma deunak :bijak adizkide zintzo-zintzuak. Irakasle-agirija atera, be, egun bateau atera leben. Bonabendur'ak baña eleban lenen aŕtu gura agirija, Toma'k bere ez: bestia lenago ixatia gura leben. Azkenez Toma deunak lenen aŕtu leban.

Arako baten Toma ospetsuba Bonabendur ospetsubaren txakijan saŕtu zan—oneduko bijak irakasle argijak ziran Paris'an—:

"—Bonabendur: ¿nundik ateraten dozu nun ikasten dozak ainbeste gauzatxo, ez ore aŕetaz gabezan gauzatxuok?

—¿Nun ikasten yuadazan? Aoŕ idaztijak.

—Oŕeik idaztijoik gitxi dozak.

—Nik, Toma, oŕtxe ikasten yuat.

—Ba, ezin legikek ori, Bonabendur. Erakatsi egistazak beste eure idaztijoik.

Orduban Bonabendur'ak auŕian leben Jesu-Gurutzaldubaren irudija erakutsijaz:

—Aoŕ nire idaztija."

Pantzeskaŕen eta domekaŕen auŕka batzuk jagi ziran Paris'an: Toma'k eta kun bijoik eta edeŕto aldeztu, be.

Giraldo maketo zantaŕak lekaide batek landeŕtasuna elebela jaboten-eta, lekaidiek gustijen auŕka idatzi leban idazti ustel bat. Berialaxe erantzun leutsan Bonabendur deunak beste idazti edeŕ bategaz, "Apologia Pauperum".

Egun batzuk igaziťa Giraldo iguingaŕija elbaŕidun eta legenaŕdun, berak ibazi leben letz, il zan.

Ogetamabost uste leuzala ,berak nai ebala lekaipuru nagusija autu leben. Ondoetoŕi yakon Bazkunari Bonabendur nagusi ixatia, oinpetuta leguazan aran asko beŕpiztu ta ekandunetan auŕera egiťeko pisko otziťuta leguan gogua sutu ta indaŕtu egin lebalako. Oŕetarako Batzaŕ nagusija bere ta arau baŕijak ezaŕi lebazan.

Jaungoiko bilduŕgaŕijaren bilduŕ-bilduŕ-zan: oŕegaťik egun batzuk jaupa-egin baŕik eta jaunaŕtu baga egon zan apaizgaiñaŕen. Aretako egun baten beste ana, bat jaupa-egiťen eguala, oteuna zatituko, otzunki bat Bonabendur'gana eldu zan. Uneatan argi-argi leban Jaungoikoa'gana artaz eta maťasunez uŕeratutia sari-apaiasunaz aldenduta egotia baño.

Amaŕgaŕen Gergori'k Janzkoŕdun eta Albano'ko gotzaña autu leban: Pantze'ko Leon'en batzaŕa egin biaŕ zan gerkaŕak ormataŕakin batuteko ta ara juan zan Bonabendur deuna. Gerkaŕak ormataŕakin batutia loŕtu leban.

Antxe il ,be ,egin zan 1274'gaŕen bagila-14'gn.

Pantzeskaŕak Leon'an daben lekaidetxiko ioŕtzi leben.

AGAREL

"Sorgin - idaztija"

Bein baten "Irakorta" basetxeko mutilari, basotik etxerantza etoŕala bide-ertzian lamiña bat ageŕtu yakon. Eta lamiña arek, mutilari, abegi ona eginda iŕibaŕez esan eutson:

—Moŕosko, "Irakorta" basetxeko semia al-az?

—Bai, angua ixan biaŕ naz—mutilak erantzun eutson—. Antxe jayorikua nazala esaten da-be ta... ¿zegaťik iťanduten daustazu?

—Eure aťaren seme bateri bezuza (eŕegalu) bat egin gurean aspaldiz nagulako.

—¿Bezuza egin gurean?...

—Bai, ¿eztok gura ala?

—Ona ixan ezkero aŕtu be...

Orduban, lamiñiak, eskumako eskuba bulaŕetatuta bijotzaren ganetik azal-goŕidun idazti dotore bat atara eban; eta bezuzatzat emoten eutsola-ta mutilari eskiñi eutson. Eta mutilak, polit eta edeŕ eretxita, pozez aŕtu eutson. "¡Auxe gauza poliťa, auxe bezuza edeŕa!"—esaten eban.

Irakuŕteko zabaldu ebanian baña, gelduta geratu zan, liburuaren oŕijetan itsu-laŕosa piloak euŕkiťu ebazalako.

—¡Gauziaren bakana!—esaten eban—. Liburu onek itsu-laŕosak daukoz... ¿Laŕosatxu oneik ze ikuŕ ete?... ¿Onez ala txaŕez imiñijak ete-dira?... ¡Ene olakorik! Loratxu onetzaz esakun berezija ba-da ba-...

Itsu-laŕosa laŕosa
etzara edeŕ laŕosa,
loria dozu txikija
ta aŕantzia zoŕotza.

Eta "Irakorta"ko mutil gastia, bertso esakun'au uleŕtu gurean iťun eta oldozkoŕ jaŕi zan. Lamiñiak baña, mutilari, ezetara be astirik euki ez egijan, begirakune zoŕotz bat eginda, ben-ben esan-eutson:

—Tirok, tirok; buru auste geyago-barik ekak idazti ori. Izki dotorez edeŕto apainduta biguŕtuko duat eta...

Mutilak, liburuba, aiko-maiko barik emon eutson; eta lamiñiak, beriala eskubiťoŕetik arantza zoŕotz bategaz odola atarata ,idaztijaren oŕi zurijetan odol-idazkuraz izki bakan batzuk egin zituban. Gero, idatzi ostian ,baŕiro be mutilaren eskubetan imiñi eban. Eta esan eutson etxeraŕte ez-egijala zabaldu; ta etxeko leyorik txikijenian gauero ilargiťan irakuŕi egijala, aŕen egin eutson.

Ganeko egunetan ,gixagaxo andijak, lamiña'ren onu-esanak aintzak aŕtuta, iñun diran gaiztakerijak egiťen ebazan. Ori nai-ta, auzoetakuak beratzaz berba egiťen ari ziran. Len ain ona ixan zan gastia aintzetian gaiztotutia, ezin ixan eben. Ulertu. Gauza bakanak egiťen ebazala-ta. Sorgin-gaizkiñak euren erara erabilela, batzuk esaten eben, eta gabaren iluntasunaz batera mundu-ziaŕ axetan ibiliťen zala ta abeŕ.

Egun baten baña, "Itsu-laŕosa laŕosa" bertso esakunaz gomutauta, gure mutilak egin ebazan txaŕkeri gustijakaz damurtu, lamiñaren liburuba eŕekara jauŕtin eban. Iluntzijan etxeratu zanian baña, eŕekara jauŕtiriko idaztija, bere gelako mai-gainean au